*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) ya dijeron en la Comisión todo lo que tenían que decir, no se van a extender mucho más. Los compañeros que le han precedido han dicho muchas de las cosas que además ellos comparten. Efectivamente en otros ejercicios se ha hecho a posteriori y no ha pasado nada. Le llama la atención lo del 2011, en todo caso será al 50% porque fue un ejercicio compartido en cuanto a la gestión. El presupuesto del 2014 que a todos los efectos se tenía que haber aprobado el 31 de diciembre, se ha aprobado en enero y no ha pasado nada. Es cierto que desde el 2009 hasta ahora se ha aprobado en junio, en julio, en septiembre, en octubre... y no ha pasado absolutamente nada. Ellos quieren que haya transparencia y seguridad y eso lo da la auditoría, no se puede decir tampoco que la fiscalización que hace el Sr. Interventor no es correcta.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz galdetu dio kontu-hartzaileari zer ondorio dituen gai hori atzeratzeak eta zenbat atzeratu beharko litzatekeen; eta bere ikuspuntutik egokia den ala ez atzeratzea, ondorioengatik. Hori jakin nahi duela erabaki bat hartu aurretik.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) preguntando al interventor qué consecuencias tendría retrasar este tema y cuánto debería posponerse; y si desde su punto de vista es apropiado posponerlo o no, teniendo en cuenta las consecuencias. Quiere conocer su opinión antes de tomar una decisión.

* Kontu-hartzaileak euskaraz adierazi du auditoriak edo fiskalizazioak bi motatakoak direla, barrukoak eta kanpokoak. Barrukoa kontu-hartzailetzari bakarrik dagokio; eta kanpokoak izan daitezke nahi dituztenak edo haiek erabakitzen dituztenak. Udaletxe honetan daukate, alde batetik, Betean-ekin lau urterako; eta, horretaz gain, beste auditoria publiko bat dago, Herri Kontuen Epaitegiarena. Beraz, nahiz eta auditoria izan eta barruko txostenak eduki, kontuak beti daude Herri Kontuen Epaitegiaren pean, haiek dute azken hitza. Horiek dira "a posteriori" egiten diren fiskalizazioak. "A priori" egin behar den bakarra eta bete behar dena, barruko fiskalizazioa da.

*Interviene en euskera el Sr. Interventor manifestando que la auditorías y las fiscalizaciones son de dos tipos, internas y externas. La interna le corresponde únicamente al interventor, y pueden realizarse tantas externas como se quieran. En este Ayuntamiento, por una parte lo tienen contratado con Betean para cuatro años. Y, al margen de eso, hay otra auditoría pública, la del Tribunal de Cuentas; aunque sea una auditoría y se disponga de informes internos, las cuentas siempre están sometidas al Tribunal de Cuentas, ellos tienen la última palabra. Esos son fiscalizaciones "a posteriori". La única que hay que realizar "a priori" y es obligatoria es la fiscalización interna.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz galdetu du zer gertatuko litzatekeen momentu honetan mahai gainean uzten badute, zer ondorio dituen, jakiteko mahai gainean utziko duten edo bozketarekin aurrera egingo duten.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) preguntando qué pasaría en un momento dado si lo dejan sobre la mesa, qué consecuencias tendría, para decidir si dejarlo encima de la mesa o continuar con la votación.

* Kontu-hartzaileak euskaraz adierazi du ez duela ondoriorik. Saiatu dira onartzen, jendaurrean egon dira, eta ez dauka besterik. Formalki ez daki epaitegiak zer esango duen, hasiera batean ez dauka inolako eraginik, kontuak eginda eta itxita baitaude.

*Interviene en euskera el Sr. Interventor manifestando que no tiene ninguna consecuencia. Han intentado aprobarlas, han estado en exposición pública y hay más. Formalmente no sabe qué dirá el tribunal, en un principio no tiene ninguna consecuencia, las cuentas se han realizado y están cerradas.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz galdetu du nahiz eta auditoria hori ez izan, noizko egongo litzatekeen, zer atzerapenez ari garen, hori ere garrantzitsua baita. Izan ere, abenduan egongo badira, gehiegi atzeratzea izango litzateke.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) preguntando para cuándo estaría la auditoría, de cuánto retraso estamos hablando, ya que ese punto también es importante. De hecho, si estuvieran para diciembre, sería demasiado retraso.

* Kontu-hartzaileak euskaraz adierazi du ez dela gai esateko haien lana noizko egongo den. Badaki udaletxeko lana bukatu dutela, eta orain haien

*Interviene en euskera el Sr. Interventor manifestando que no puede decir para cuándo tendrán finalizado el trabajo. Sabe que ya han



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

emaitzaren zain daude. Abuztuan oporrak hartzen dituzte eta suposatzen du egoera normal batean irailerako egon beharko lukeela.

terminado con el trabajo del Ayuntamiento, y ahora están pendientes de sus resultados. Cogen vacaciones en agosto y supone que en principio debería estar para septiembre.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz adierazi du bere proposamena dela irailera arte itxarotea auditoriako txostena jasotzeko, eta ez badago ere, irailean bozkatzea.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que su propuesta es esperar hasta septiembre para recibir el informe de la auditoría, y si para entonces no ha llegado, votarlo.

* Peña andreak (EAJ-PNV) euskaraz adierazi du hala ere ona izango litzatekeela egoera zehatza ezagutzea, jakinaren gainean egoteko.

*Interviene en euskera la Sra. Peña manifestando que aún así sería bueno conocer el estado exacto, para estar al corriente.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz adierazi du baietz, baina haien jarrera zein den jakin nahi duela, ez daitezen irailera iritsi, oraindik auditoriaren txostenik gabe eta berriro eztabaida berdina izatea; horretarako, gaur bozkatuko dute. Borondatea badago txostena ez egon arren, gehiago ez atzeratzeagatik, irailean bozkatzeko, berak ez du inongo arazorik, kontu-hartzaileak esaten badu ez duela inongo ondoriorik, irailerako uzteko. Haien iritzia ezagutu nahi du.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que sí, pero que quiere saber cuál es su posición, para que no lleguen a septiembre, el informe de la auditoría no esté y vuelvan al mismo debate; para eso, lo votarán hoy. Si hay voluntad para que aunque el informe no esté, por no retrasarlo más, se vote en septiembre, él no tendrá ningún problema y si el interventor manifiesta que no conlleva ninguna consecuencia, lo dejarán para septiembre. Quiere conocer su opinión.

* José Angel Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) komentatu du ez daudela ados, beraiei ez zaiela axola urrian iristea ikuskaritza, gardentasun hori izateko aukera badute. Zenbait ekitalditan, adibidez, 2011n, urrian izan zen eta ez zen ezer gertatu. Ogasun Batzordean kontu-hartzaileak zintzotasun-ahalegina egin zuen eta argi esan zuen berak ez zekiela horrela egiten zela urtero.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) comenta que no están de acuerdo, a ellos no les importa que esté en octubre mientras puedan tener esa transparencia a través de la auditoría. Ha habido ejercicios como por ejemplo en el 2011 que fue en octubre y no pasó nada. En la Comisión de Hacienda el Sr. Interventor hizo un esfuerzo de sinceridad y dijo claramente que él no sabía que se hacía de esta manera año tras año.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz adierazi du

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E.BILDU)

bere arazoa dela noiz arte atzeratuko duten, data bat jarri behar dela. Kontuak prest daude, fiskalizatuta daude. Praktikoki ez dio zentzurik ikusten eginak eta barne mailan fiskalizatuak dauden kontuak direlako -gero epaitegiak egingo duen fiskalizazioa kontuan hartuta-. Eta auditoreek ikusiko balute desbiazioren bat dagoela, beti har daiteke desbiazio hori kontuan gerora ere. Ez duena ikusten da adibidez abendura arte ez egotea eta abendura arte itxarotea. Ulertu dezake urrira iristea, baina iruditzen zaio urritik aurrera asko atzeratzea dela; urte bukaeran egongo ginateke eta kontu horiek onartu beharko lirateke. Alderdi Sozialistari galdetu dio urria jarriz gero muga gisa prest egongo liratekeen.

manifestando que su problema es hasta cuándo se retrasará, hay que establecer una fecha. Las cuentas están listas, están fiscalizadas. En el plano práctico, no le ve ningún sentido a retrasar las cuentas realizadas y fiscalizadas internamente, teniendo en cuenta la fiscalización que posteriormente realizará el Tribunal de Cuentas. Y si los auditores observaran alguna desviación, siempre se puede tener en cuenta dicha desviación a posteriori. Lo que no ve es que por ejemplo la auditoría no esté hasta diciembre y estén hasta diciembre en esta situación. Puede entender que se planten en octubre, pero le parece que a partir de octubre sería retrasarlo demasiado; se plantarían a finales de año, y esas cuentas deberían estar aprobadas. Pregunta al Partido Socialista si estarían dispuestos a establecer el límite en octubre.

* José Angel Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du hasiera batean gaia mahai gainean uztearen aldekoak direla. Bigarren, bere ustez ikuskatzaileekin hitz egin behar da azaltzeko zein den egoera eta haiek esan dezatela nola ikusten duten eta zer epe dituzten; hortik aurrera, bozeramaileek ere hitz egin ahal izango dute.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que en principio están por dejar el tema sobre la mesa. En segundo lugar, cree que hay que hacer una gestión con los auditores explicando cual es la situación y también que digan ellos como lo ven y también que plazos tienen y a partir de ahí los portavoces pueden hablar también.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz adierazi du ikusita ezin dutela adostasunik lortu, mahai gainean utziko dutela eta ekarriko dutela iruditzen zaienean; ikusten badute urrian txostena ez dagoela, jarraituko dute eztabaidatzen eta bozkatuko dute, bestela eztabaidatzen jarraituko dute eta ez dute aurrera egingo. Mahai gainean geratzen da.

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que visto que no llegan a un acuerdo, lo dejará sobre la mesa y ya lo traerán cuando les parezca; si ven que en octubre el informe no está, continuarán con el debate y lo votarán, ya que si no, continúan con el debate y no avanzan. Lo deja encima de la mesa.

Mintzaldiak amaitu dira.

Una vez finalizadas las intervenciones.

Gaia mahai gainean geratu da.

El tema queda sobre la mesa.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**10. Lekuona fabrika birgaitu eta Arte Eszenikoen Zentro garaikide bihurtzeko XXXVII zki.dun lankidetza-hitzarmena onarpena.**

2013ko maiatzaren 10ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak sinatu zuten erakunde-lankidetzarako protokoloa, Niessen aretoa Artelekuren Gipuzkoako Dantzagunea programetarako aldi baterako lagatzeko. Hitzarmen horren hirugarren klausulak Lekuona egokitzeko prozesuaren izaerari, gutxieneko ezaugarriei eta finantzazioari egiten die erreferentzia, besteak beste.

Aldi horretan hainbat jarduera egin dira "Dantza eta arteen kultura- fabrika. Lekuona" izenarekin ezagutzen den proiektuan; hauek dira azpimarragarrienak:

- Gernika plazako haurren jokoetarako eremua berritzea. 2013ko abendua.

- "Lekuona eraikinaren egitura kontsolidatu eta kutsadura kentzea, bai eta proiektua idazteko laguntza teknikoa eta obra-zuzendaritza ematea ere. 18/03: Lekuona EUan udal-liburutegia egitea". Obra horiek 2014ko uztailean amaitzea aurreikusten da.

"Lekuona Arte Eszenikoen Zentroa" proiektuko lanak burutzeko proiektua, bai eta "Obra-zuzendaritza. Arkitektura. Lekuona arte eszenikoen zentroa"

**10. Aprobación del Convenio de Colaboración nº XXXVII, para la rehabilitación y adaptación de la fábrica Lekuona en Centro Contemporáneo de Artes Escénicas.**

El 10 de mayo de 2013 la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria suscribieron el protocolo de colaboración institucional para la cesión temporal de la Sala Niessen para el programa *Gipuzkoako Dantzagunea*, ubicado en Arteleku. La cláusula tercera del mismo se refiere a la naturaleza del proceso de adecuación de Lekuona, sus características mínimas y su financiación, entre otras cuestiones.

En ese periodo se han realizado diversas actuaciones en el proyecto conocido como "Fabrica Cultural de la danza artes escénicas. Lekuona", entre las que cabe destacar:

- La reposición de la zona de juegos infantiles de la Plaza Gernika. Lekuona. Diciembre de 2013

- Las obras de "Consolidación estructural y descontaminación del edifico Lecuona, así como la asistencia técnica para la redacción y dirección de obra. Extracto del Proyecto de Ejecución Biblioteca municipal en U.I. 18/03: Lecuona (Errenteria)". Dichas obras está previsto que finalicen en julio de 2014.

- El proyecto de ejecución de las obras de "Proyecto de Centro de Artes Escénicas Lekuona", así como la asistencia técnica para la "Dirección de Obra.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

proiekturako laguntza teknikoa ere.

Arquitectura. Centro de Artes Escénicas Lekuona.

Jarduera horiek guztiek kontuan izan dute parte-hartze prozesua.

Todas estas actuaciones han tenido en consideración el proceso participativo efectuado al efecto.

Aipatutako erakunde-protokoloak jasotzen du proiektuak aurrera egiten duen heinean hitzarmen bat sinatzeko beharra, erakunde bakoitzaren ardurak eta funtzioak definitzeko eta bakoitzari dagozkion zereginak eta ekarpen ekonomikoak argitzeko.

El citado protocolo institucional recoge la necesidad de suscribir un convenio, a medida que se vaya avanzando en el proyecto, en el que se definan las responsabilidades y funciones de cada institución, y se clarifiquen los cometidos y aportaciones económicas que les corresponden a cada una de ellas.

Hitzarmenaren xedea da aurreko paragrafoan adierazitakoa definitzea.

El objeto del convenio reside en la definición de lo reseñado en el párrafo anterior.

2014ko ekainaren 20an, Laura Landa kulturako teknikariak, hitzarmenaren aldeko txostena egin du.

Con fecha 20 de junio de 2014, la técnico de cultura Laura Landa, emite informe favorable al convenio.

2014ko ekainaren 25ean Vicente Castiella udal aholkulari juridikoak, hitzarmenaren aldeko txostena egin du.

Con fecha 25 de junio de 2014, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella emite informe favorable al convenio.

2014ko ekainaren 25ean Pedro Etxarri kontuhartzaileak hitzarmenaren aldeko txostena egin du.

Con fecha 25 de junio de 2014, el interventor Pedro Etxarri emite igualmente informe favorable al convenio.

2014ko uztailaren 2an Xabier Agirre udal arkitektoak hitzarmenaren aldeko txostena egin du.

Con fecha 2 de julio de 2014, el arquitecto municipal Xabier Agirre, emite informe favorable al convenio.

**Zuzenbide oinarriak.-**

**Legislación aplicable.-**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55etik 62ra arteko artikuluak. Herri Administrazioen Araubide Jurikidoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren

Artículos 55 al 62 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases de Régimen Local (LBRL), y los artículos 4 al 10 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico y Procedimiento Administrativo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

26ko 30/1992 Legearen 4tik 10 bitarteko artikuluak.

Hirigintza Batzordeak aldeko irizpena eman zion 2014ko uztailaren 8an.

Hirigintzako ordezkariak proposamena egin du.

Hauek mintzatu dira:

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du labur ariko dela, susmoa duelako ez dagoela ezer berririk, ezagutzen dituzten eta aurreko osoko bilkuretan adierazi dituzten jarrerak ikusiko dituztela. Ez dio garrantzirik kentzen Udalak Dantzagune Lekuona eraikinean kokatzeko egindako apustuari. Azpimarratu nahi du hori Udalaren apustua dela, ez dela talde politiko baten edo batzuen apustua, Udalbatzaren gehiengoaren apustua dela baizik. Proiektua indartu egingo da, hala espero du, bozkatuko duten hitzarmenaren zirriborroa onartuta. Bere ustez pauso honekin Errenteriaren etorkizunerako proiektuarekin aurrera jarraitzen dute. Bistakoa da Errenteriaren etorkizuna ez dagoela idatzita, inork ez daki zer izango den. Nahiko bistakoa da baita ere etorkizunik bada, bere herriak zerikusi handiagoa duela Dantzaguneren kultura-industriaren kontzeptuarekin eta kultura-ekipamendu horietako instalazio guztiekin, horiek ematen baitiote zentzua proiektu honi; hitzarmena onartuta etorkizunerako apustu horren oinarriak ezartzen dira. Guztiontzako bistakoa da Errenteriaren etorkizuna ez dela iragan industrialetik etorriko, hori ez da itzuliko, eta horregatik bozkatuko du hitzarmenaren proposamenaren alde.

Común.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo de fecha 8 de julio de 2014.

Vista la propuesta del Delegado de Urbanismo.

Se producen las siguientes intervenciones,

*Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra), va a ser breve porque intuye que no hay nada significativamente nuevo, se van a repetir una serie de posicionamientos ya conocidos y manifestados en Plenos anteriores. No quita importancia al paso que se va a dar en la apuesta municipal por la instalación de Dantzagune en el edificio Lekuona. Quiere recalcar que esto es una apuesta municipal, ya no es una apuesta de un grupo o grupos políticos sino que es la apuesta de la mayoría de la Corporación a favor de este proyecto, el cual se va a ver reforzado, espera, por la aprobación por su parte del borrador del Convenio que se somete a votación. Considera que con este paso que van a dar, están dando un paso más en un proyecto de futuro para el pueblo de Errenteria. Es evidente que el futuro de Errenteria está por escribir, nadie de los que ahí está lo conoce. También resulta bastante evidente que de tener un futuro, su pueblo tiene más que ver con el concepto de industria cultural de Dantzagune y todas las instalaciones que se inscriben dentro de esa serie de equipamientos culturales que son las que dan sentido a este proyecto, que apuntala de alguna forma esa apuesta de futuro que significa la aprobación del Convenio. Es evidente para todos que el futuro de Errenteria lo que no va a venir es de un pasado industrial que evidentemente no va a volver por eso va a votar a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

favor de la propuesta de Convenio.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du baterako abentura bat dela eta, hobe ulertzeko, analogia batekin irudikatuko duela: pentsa dezagun bazkide bat bilatzen ari garela pisua partekatzeko. Pisua erosi dugu, obra erdibana ordaindu dugu eta argia, ura eta gasa erdibana ordaintzeko konpromisoa hartzen dugu. Baina pisura joateko garaian, gu seme bakarrarekin joan gara eta pisukideak hemezortzi ekarri ditu; gauzak aldatu egiten dira. Lekuonaren proiektuak ilusioa piztu zuen hasieran, eta orain Gozilla munstroaren antza hartzen ari da eta Udala oinarrizko zerbitzuak arriskuan jartzeko hainbeste zorpetzeko mehatxua ageri da. Herrian bertan dago Eresbil eta ospe handiko erakundea da. Kaleko jendeak ez du gehiegi ezagutzen eta ez du hurbileko sentitzen, eta galdera da gauza bera gertatuko den Lekuonarekin, hainbeste diru inbertitu eta gero. Eskatzen du mahai gainean uzteko aldeko bideragarritasun ekonomikoko txosten bat izan arte.

*Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que esta es una aventura conjunta que para mejor comprensión la va a dibujar con una analogía: “Imaginemos que nos hemos buscado un socio para compartir piso. Compramos el piso, pagamos a medias la obra y nos comprometemos a pagar a medias la luz, el agua y el gas. A la hora de la verdad nos presentamos a vivir con un único hijo y nuestro socio que comparte piso con nosotros se trae dieciocho, la cosa cambia de color. El proyecto de Lekuona que comenzó como algo muy ilusionante, empieza a parecerse al monstruo de Godzilla y amenaza con endeudar al Ayuntamiento hasta comprometer los servicios básicos. Eresbil reside en la Villa y se trata de una institución de prestigio. La gente de la calle no muestra un conocimiento claro ni abundante, ni cercanía mayoritaria por lo menos masiva, cabe preguntarse si pasará otro tanto con Lekuona tras invertir ese dineral. Solicita que se quede sobre la mesa hasta que haya un informe de viabilidad económica satisfactorio.

* Peña andreak (EAJ-PNV) adierazi du bere taldearen ustez hitzarmen hau positiboa dela Errenteriarentzat, ona dela eta berri ona dela akordio horretara iritsi izana. Uste dute positiboa dela positiboa iruditzen zaielako Dantzagune Errenterian egotea, hemezortzi seme-alabekin edo laurogeirekin etorri, eta laurogeita hamar baditu bi baino hobe, kostuak hobe jasanaraziko baitira. Ona iruditzen zaie eta, gainera, uste dute ez dela kasualitatea Errenteriara etortzea, ez dator ondo ematen duelako edo Lekuona libre zegoelako. Hona dator Dantzagune proiektua herri honek kultura-esparruan duen aberastasunaz elikatuko delako, berezkoa baitu. Gainera, uste dute positiboa dela,

*Interviene la Sra. Peña (EAJ-PNV) manifestando que su Grupo considera que este es un Convenio positivo para el Municipio de Errenteria, creen que es bueno y que es buena noticia que se haya alcanzado. Creen que es positivo porque creen que positivo es que Dantzagune esté en Errenteria, venga con dieciocho hijos o venga con ochenta y si viene con noventa mejor que con dos porque los costes soportados serán repercutidos de mejor manera. Creen que es bueno y además creen que no es casualidad que venga a Errenteria, no viene porque suena bien o porque Lekuona estaba libre. Viene porque el proyecto Dantzagune se va a nutrir



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

horrelako ekitaldietarako prestatutako beste edozein espaziotan baino jende gehiago bildu ahal izango duelako Errenteriak espazio horretan. Bere taldeak balorazioaren hasieran planteatu zuenean Dantzagunea Errenteriara zihoan edo ez, argi izan zuten hori, baita beste premisa bat ere, udalerriarentzat positiboa izan arren, ez zuen ito behar Udalaren gaitasun ekonomikoa, ezin zituen arriskuan jarri gastu arruntak edo gizarte-zerbitzuak. Ildo horretan lan egin dute zorrotz urte hauetan, proiektua gauzatu den heinean. Jarrera konstruktiboarekin egin dute eta azken pieza aurrekontuaren azken negoziazioan mugitu zuten, gobernu-taldearekin akordio batera iritsi baitziren Lekuonaren aurrekontuko partidetako dirua ez ukitzeko hitzarmena sinatzen zen arte, bermatzeko Aldundiak gastuen % 60 jarriko zuela. Orduan ez zen lurzoruaren balioa sartu. Ez dute pentsatzen jabetza lagako dutenik. Aldundiaren lurralde-proiektua Errenterian gauzatzen den arren, jabetza erakunde honena izango da, horregatik oso lasai daude, horregatik ez zen sartu 60-40 balorazioan. Beste kontu bat zen, Errenteriarentzat foru-proiektu interesgarria izateaz gain kultura-maila eta ospea handitzeko, jendea ekartzeari dagokionez, auditorio bat dela -nahi duzuen bezala deitu-, udalerriaren beharrei erantzuteko moduko edukiera duena. Ildo horretan, beren balorazioa positiboa da eta hitzarmenaren alde bozkatuko dute. Hitzarmen horren ondoriozko proiektua iruditzen zaie ona izango dela udalerrirako eta espero dute guztiek emaitzak ikusteko aukera izatea eta emaitza horiek espero direnak edo hobeak izatea.

de la riqueza que en el ámbito cultural tiene este pueblo y lo tiene por esencia. Creen además, que es positivo porque se consigue un espacio en el que el Municipio de Errenteria va a poder acoger diferentes eventos con una capacidad superior a la que puede ofrecer cualquier otro espacio en condiciones para el tipo de actos para los que está pensado. Cuando su Grupo se planteó en el inicio la valoración de si Dantzagunea iba a Errenteria o no, tuvieron claro esto y también tuvieron clara otra premisa, aún siendo positivo para el Municipio no debía ahogar la capacidad económica de este Ayuntamiento, no debería comprometer los gastos corrientes ni la prestación de los servicios tal y como se viene haciendo. En este sentido han trabajado y de manera pro positiva y no poco exigente a lo largo de estos años conforme se ha ido desarrollando el proyecto. Lo han hecho desde una actitud constructiva y la última pieza se movió en la última negociación presupuestaria donde alcanzaron un acuerdo con el Equipo de Gobierno en el que no se iba a tocar el dinero de las partidas presupuestarias de Lekuona hasta que no se firmara el Convenio que garantizase que la Diputación aportara el 60 % de los gastos. Entonces, por supuesto, no se incluyó el valor del suelo, el valor del edificio. En ningún caso están considerando que van a ceder la propiedad. Aunque el proyecto territorial foral se desarrolla en Errenteria, la propiedad seguirá siendo de esta Institución, en ese sentido tienen tranquilidad absoluta, fue ese el motivo por el cual no se incluyó en la valoración del 60-40. Luego había otro escollo que para ellos era que mas allá de albergar un proyecto foral interesante para el municipio de Errenteria para que siguiera creciendo a nivel cultural y también así su fama, a nivel de atraer afluencia de personas y demás, era un espacio auditorio, se le puede llamar como quieran,

con una capacidad que pueda acoger las necesidades del municipio. En este sentido su valoración es positiva y van a votar a favor del Convenio que se materializará finalmente en un proyecto que entienden será bueno para el municipio y ojalá tengan todos oportunidad de ver los frutos, a la altura de lo previsto o más

* José Angel Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du eskatuko dutela mahai gainean uzteko, jakitun baitira gai oso garrantzitsua dela eta ez dagoela bideragarritasun ekonomikoko txostenik. Aipatzen ari diren zifrak eta jende-kopurua gehiegizkoak dira inolaz ere. Bere taldeak, nahiz eta ez sinistu, gaia arretaz begiratu du, erregistroan sartu dute eskaera bat kontu-hartzaileari zuzendua, txosten hori egin dezan, hainbat gai oinarri hartuta. Faltan botatzen dute Aldundiaren aurrekontu-akordioa, 2016rako konpromisoa biltzen duena, milioi eta erdi euroz ari baitira. dokumentu horren ziurtasunik gabe ezin dute jarrerarik hartu. EAJk argi ikusten ditu zenbakiak, baina beraien ustez zenbakiak guztiz desberdinak dira. Udalak dirua gastatu zuen egoera jakin baterako eraikin bat izateko eta orain hori aldatu egin da eta ez da inon jaso, hegakorra da. Uste dute jaso egin beharko litzatekeela, orduan zenbakiak aldatu egingo lirateke, eraikina udalaren eta herri osoaren erabilerarako dela uste dute eta orain probintziaren eta Foru Aldundiaren zerbitzurako erabiliko da. Hori alde batera utzita, gai hori ez da kontuan hartzen ondorio ekonomikoetarako, baina kulturako txostenak ere ez ditu gastuak aipatzen, beti sarrerak aipatzen ditu; paperak dena onartzen du, baina zientzia-fikzioak ere bai... Nahikoa da txosten horretako paragrafo batzuk irakurtzea konturatzeko zertaz ari diren. Dantzagune gaur egun 50 talde egoiliarrek eta ez-egoiliarrek erabiltzen dute urtean zehar. Batez beste, hamabi pertsona inguruko taldeak dira, hainbat jardueretakoak; bestalde, Dantzagunera

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que van a pedir que se deje encima de la mesa y lo van a pedir siendo conscientes de que se trata de un tema muy importante y en ningún momento hay un informe de viabilidad económica. Se están hablando de unas cifras para un movimiento de gente desproporcionado a todas luces. Su Grupo, aunque no se lo crean, han mirado el tema con cariño, han metido en registro una petición al Sr. Interventor para que proceda en base a una serie de cuestiones a ese informe. Echan en falta el acuerdo presupuestario de la Diputación que recoja el compromiso para el 2016, se está hablando de un millón y medio de euros. Sin la seguridad de este documento no se pueden situar. El PNV ve claros los números pero ellos piensan que los números son otros completamente diferentes. El Ayuntamiento se gastó un dinero para tener un edificio para una situación determinada y ahora eso se ha modificado y no se recoge en ningún sitio, es como volátil. Creen que se debe recoger, entonces los números cambian, entienden que el edificio era para un uso municipal y del municipio en su totalidad y ahora está destinado a un servicio provincial y de Diputación. Independientemente de esto, no se computa a efectos económicos ese tema pero igualmente el informe de cultura nunca habla de gastos, siempre habla de ingresos, el papel lo soporta todo pero la ciencia ficción también...Puede leer algunos párrafos de ese informe para ser

egunero 40 pertsona joaten dira, batez beste. Instalazioak bisitatu, ikusi edo erabiltzeak edo programazioak urtean udalerriari 750.000 euro baino zertxobait gehiagoko eragin ekonomiko zuzena ekartzen diote. Egia esan, harrigarria da, gutxi gorabeherakoa omen da, beraien ustez gutxi gorabeherakoa baino gehiago alegiazkoa da. Zuzeneko eragina, zeharkako eragina eta jardueren eskaintzaren eragina jartzen badira, eragin ekonomikoa urtean 1,25 milioi euro ingurura igoko litzateke. Nahi ditugun zenbaki guztiak jar ditzakegu, txostena ondo egon daiteke, aholkulari juridikoaren oniritzia izango du... baina inoiz ez dira gastuak aipatzen. Beren ustez eragin ekonomikoaren azterketa ez da egiaztatzen, beraientzat emaitza ez da sinesgarria, aurreikusitako zerbitzu publiko berri horren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txosten bat egin behar du kontu-hartzaileak, are gehiago, kontu-hartzailearen txostena obra baino lehen egin beharko litzateke, ez ondoren. Demanda gal dezakete edo ez, baina galtzen badute, kontuan izan beharko dituzte obrak geldiaraztearen eta kalte-ordainen kostuak, errekurtsoak auzibidean daude. Horrez gain, Arte Lekuk funtzionamenduan eman dituen urte guztien ondoren, ez da mahai gainean jarri Arte Lekuren memoria ekonomikoa, jakiteko zer zifra eta zer gastuz ari garen. Iruditzen zaie gastua gehiegizkoa dela eta ezin dela horrela aritu krisi-egoeran.

conscientes de lo que se está hablando: “Dantzagune es utilizado en la actualidad por 50 grupos residentes y no residentes a lo largo del año. En promedio son grupos integrados en unas doce personas en las distintas actividades desarrolladas, por otra parte la utilización diaria de personas que acuden a Dantzagune es de 40 personas en promedio. Visitar, asistir o utilizar las instalaciones y o su programación supone un impacto económico directo anual flujo de ingresos para el municipio ligeramente superior a los setecientos cincuenta mil euros.” La verdad es que le sorprende, se trata de un ejercicio de aproximación, dice, ellos creen que más que aproximación es imaginación. Si se incorpora el impacto directo, el impacto indirecto así como el impacto de la oferta de las actividades, el impacto económico se incrementaría orientativamente hasta un entorno de uno con veinticinco millones al año. Se pueden poner todos los números que se quieran, el informe puede estar bien desarrollado, puede contar con el visto bueno del informe del Asesor Jurídico...pero en ningún momento se habla de gastos. Ellos creen que el análisis del impacto económico no se encuentra acreditado, el resultado para ellos no es creíble, entienden que por parte del Interventor tiene que haber un informe serio sobre la viabilidad económica de este nuevo servicio público proyectado, es más el informe del Interventor debería estar antes de que se haga la obra, no después. Hay una demanda que se puede o no perder pero si se pierde, hay que tener en cuenta la paralización de obras y las indemnizaciones, los recursos que están en vía judicial. Además curiosamente después de todos los años que ha estado Arte Leku funcionando, ni tan siquiera se ha puesto encima de la mesa la memoria económica de Arte Leku para saber de qué cifras, y de qué costes estamos hablando. Les parece que el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gasto es excesivo y creen que no pueden estar por esa labor en la situación de crisis en la que se encuentra no solo este municipio sino el país en general.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du lehenengo esango lukeela zer den proiektua eta zergatik iruditzen zaion garrantzitsua dela edo ez dela; eraikinaren gainean ari dira, eta ez eraikin horren baitako proiektua eta proiektu horrek suposatuko duen guztiaren gainean. Proiektu horrek Gipuzkoaren beharrei erantzungo die, Errenteriaren beharrei, eta, gainera Gipuzkoako mugez haratagoko proiektu ere bihurtu nahi du. Proiektuak, zergatik ez, harreman garrantzitsua izango du mugaz bestaldean, Iparraldean, dauden beste zentro batzuekin, adibidez, Ballet Biarritz zentroarekin. Zentro horiekin zenbait kontaktu izan dira, eta arte eszenikoek eta horietarako instalazioek Euskadin duten errealitatea ikusita, badago aukera handi bat erreferentzia-puntu bihurtzeko. Azpimarratzen du herrian ospe handiko taldeek lan egiten dutela eta horiek ere han espazioa izan lezaketela; ez da espazio nagusia soilik, auditorioa ere bada, herri honi zerbitzu emango dio eta esandakoa baino askoz gehiago da. Antzerkiko eta dantzako hainbat konpainia lanean ari dira eta espazio bat behar dute beren lan guztia aurrera eramateko. Berriro dio, proiektu bakarra da, ez dira bi proiektu. Zalantzarik gabe, herri honi asko emango dio. Denbora asko daramate kontu honekin, 2013ko aurrekontuan sartu zen, orduan hasi ziren eztabaidatzen eta, ondoren, hainbat osoko bilkuratan aipatu da. Beraiek, hasieratik, Lekuonaren alde egin zuten, eta orain kontent daude, Errenteriako Ezkerrako ordezkariak aipatu duen moduan, Udalaren proiektu bat delako, hori garrantzitsua baita. Gai honekin hasi direnetik, saiatu dira hainbat momentutan Lekuona proiektua geldiarazten, buelta asko eman dituen adierazpen instituzional batekin eta, ondoren, politika ia agortu

Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU), él empezaría estableciendo qué es el proyecto porque cree que es importante y si no, están hablando del edificio y no del proyecto que alberga ese edificio y todo lo que va a suponer ese proyecto. Estamos hablando de un único proyecto que responde a las necesidades de Gipuzkoa, a las necesidades de Errenteria y que además tiene vocación de convertirse en un centro que vaya más allá de las fronteras de Gipuzkoa. Un proyecto que incluso y porqué no, tenga relaciones importantes con otros centros que están al otro lado de la muga en Iparralde como el Centro de Ballet Biarritz etc. Ya existen una serie de contactos con esos centros e incluso, vista cual es la realidad de las artes escénicas y las instalaciones para las mismas en el País Vasco, existe una opción importante de convertirse en un punto de referencia. Insiste en que en este pueblo trabajan compañías de reconocido prestigio que también podrían tener lugar en ese espacio, no es solo el espacio central, el espacio conocido como el auditorio lo que va a dar servicio a este pueblo, es mucho más. Existen compañías de teatro y danza que están trabajando y que necesitan un espacio para poder desarrollar todo su trabajo. Vuelve a insistir, como proyecto es un único proyecto, no hay dos proyectos, sin duda alguna va a dar mucho a este pueblo. Llevan ya mucho tiempo con este tema, se incluyó en el Presupuesto del 2013, empezaron a discutir sobre la cuestión ya en ese momento y posteriormente se han celebrado varios Plenos con este tema. Ellos desde el primer momento apostaron por Lekuona, y en este



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dutenean, auzibidean; baita ere eskatu zuten obra guztiak zuhurtziaz geldiaraztea... zorionez, ez dute onartu, eta proiektuak aurrera darrai. Orain, kontua da ez dutela eraikinaren balioa sartu. Arduratzekoa da, ez dute egia esan eta ez da lehen aldia. Etengabe esaten ditu gezurrak gai horren inguruan, hemen inork ez du eraikina bi milioi eta laurehun mila euroren truke erosi, ez dago eraikin honen kontraturik, eskriturarik, salerosketa-dokumenturik. Birpartzelazio-proiektu bat dago hainbat eraikuntza eremu batean biltzen dituena, Masti Loidiren aldamenekoa, hain zuzen. Lekuonarekin akordio batera iritsi ziren; Lekuonaren lur-saila eta Udalarena birpartzelatu ziren. Lekuonaren zatia Udalari esleitu zitzaion eta beste zatia Lekuonako jabeei. Beste akordio bat ere egin zuten jabeekin, fabrika lur-sail horren aurrean jarri nahi dute eta horrek salerosketako gastua izango du. Lekuonak lur-sail hori erosi zuen laurehun mila euroren truke. Hori da egoera, inork ez du eraikina bi milioi eta laurehun mila euroren truke erosi. Hori ez da egia, eta jendea nahasten ari dira. Bigarren, kudeaketaz, % 40-60az hitz egiten dutenean, bi gauza bereizi behar dira, alde batetik, inbertsioa, obra bera, eta beste gauza bat da kudeaketa-proiektua eta alde bakoitzak zenbat jartzen duen kudeaketa-proiektu horretarako. Obra hori da eta kostua argi dago, eta kasu horretan, akordio ona lortu dute, % 60-40. Are gehiago, oso ona, obra horren kostua milioi bat eta erdi handitu baita espazio nahikoa ona eta herri honen beharrei erantzuteko modukoa izan zedin. Milioi eta erdiko gorakada horren % 60 ere Foru Aldundiak hartu du bere gain. Bere ustez egoera ikaragarri ona da altxortegiari dagokionez. Aipatzen dute bi milioi euro gastatu direla liburutegirako aurreikusitako bost milioiak beharrean; bide batez, proiektu horrek ez zuen beste erakunde batzuen finantzaziorik. Inbertsioaz ari dira, zifrak 60-40 dira, gainerakoa beste proiektu bat da eta argi dago garatu egin beharko dela, finkatu gastuak, zenbat jarriko duen alderdi bakoitzak, funtzionaltasuna, udalari zenbateko

momento están contentos porque como ha comentado el representante de Errenteriako Ezkerra es ya un proyecto municipal y en este sentido es importante. Desde que han empezado con este tema, se ha intentado paralizar en varios momentos el propio proyecto de Lekuona, sea con una Declaración Institucional con la que se han dado muchas vueltas, después se opta por la vía judicial cuando la vía política está prácticamente agotada, también se solicita la suspensión cautelar de toda la ejecución de las obras...afortunadamente no se ha concedido, el proyecto sigue adelante. Ahora resulta que no han incorporado el valor del edificio. Es preocupante, no se dice la verdad y no es la primera vez. Constantemente se está mintiendo sobre esta cuestión, aquí nadie ha comprado el edificio por dos millones cuatrocientos mil euros, no existe ningún contrato, escritura, documento de compraventa de este edificio. Hay un proyecto de reparcelación que da una serie de edificabilidades en una zona, concretamente la que está al lado de Masti Loidi. Se llega a un acuerdo con Lekuona en un momento concreto, se hace una reparcelación entre el terreno que tiene Lekuona y el que tiene el Ayuntamiento. Se adjudica la parte que tiene Lekuona para el Ayuntamiento y la otra parcela se adjudica para los propietarios de Lekuona. Existe otro acuerdo con los propietarios, quieren instalar la fábrica justo enfrente de esta parcela con un gasto de compraventa. Efectivamente Lekuona compra esa parcela por cuatrocientos mil euros. Esa es la situación, nadie ha comprado por dos millones cuatrocientos mil euros el edificio. Esto no es cierto, es un error con el que se va confundiendo a la gente. En segundo lugar, cuando se habla de gestión, 60-40% etc. hay que separar las cosas, una cosa es la inversión, lo que es la propia obra y otra cosa es lo que es el proyecto de gestión y cuanto aporta a ese proyecto

zerbitzua emango dion eta zenbatekoa udalaz gaindiko beste erakunde horri. Kuantifikatu egin beharko da, agian interesatzen zaie ordu gehiago izatea Udalarentzat, eta orduan diru gehiago jarri beharko du, edo ez, agian ordu gutxiago interesatzen zaizkie, eta orduan gutxiago jarriko da. Edonola ere, kontu hori negoziatu eta eztabaidatu egin behar da, eta horretan ari dira. hurrengo pausoa da espazioa kudeatzeko lankidetza-hitzarmena, baina espazio hori kudeatzeko ere agian beharrezkoa da hainbat erakunde sortzea, fundazioak...

eta hor jarriko du bakoitzak bere kapitala; edonola ere, beraiek Lekuona fabrikarekin duten kapitala jarri ahal izango lukete, udalerriarena baita. Bere ustez ez da ona eraikinaren balioaren gastuan 60-40an sartzea, orduan eraikinaren titulartasuna ere 60-40 izango bailitzateke, eta ez zaio iruditzen udalaren interesetarako justua denik, Foru Aldundiarekin batera proiektu bat egitea, baterako proiektu horren urteak ezartzea, Foru Aldundiak inbertsio bat egiten badu inbertsio horren amortizazioa izan beharko baitu; horiek dira akordioaren baldintzak eta amaitutakoan, ikusiko da jarraitzen den edo ez eta titulartasuna Errenteriako Udalari itzultzen zaion. Bere ustez askoz hobea da egoera hori 60-40 izatea baino. Hala eta guztiz ere, hemen esaten da kasu hori mahai gainean utzi behar dela, esan behar dela kontu-hartzaileak bere garaian txostena egin zuela inbertsio-kontuen gainean eta, horrez gain, kudeaketaren inguruko txostenak egingo dituela aldiro. Momentu honetan, kontu-hartzaileak informazio gutxi du kudeaketa-gastuei buruzko txostena egiteko. Oraindik ez dute akordiorik lortu, ez dakite zenbat diru erabiliko duen administrazio bakoitzak proiektu honetan eta zenbat kostatuko den, kalkuluen gainean ari baitira. Kontuan izan behar da beste akats bat ere, proiektua ez da Arteleku, beste proiektu bat da. Behin baino gehiagotan esan dute arte plastikoen atala beste leku batera joan dela eta

de gestión cada parte. La obra es la que es y cuesta lo que cuesta y en eso se ha llegado a un acuerdo muy satisfactorio del 60-40% y dice más, muy satisfactorio porque esa obra se ha incrementado en un costo de un millón y medio de euros justamente para conseguir un espacio que fuera lo suficientemente bueno y que respondiera a las necesidades de este pueblo. El incremento de este millón y medio de euros ha sido también asumido por Diputación en un 60%. Cree que la situación es tremendamente buena en cuanto a las arcas municipales. Se está hablando de gastar dos millones y medio de euros frente a los cinco millones de euros que se pretendían para la biblioteca, que por cierto había cero financiación de otras administraciones. Están hablando de inversión, las cifras son las que son 60-40, el resto es otro proyecto y evidentemente habrá que desarrollarlo, establecer cuales son los gastos, cuánto aportará cada parte, la funcionalidad, cuánto servicio va a dar a lo municipal y cuánto a otro ente que va más allá de lo municipal. Habrá que cuantificar, igual interesa que haya más horas para lo municipal y entonces se tendrá que aportar más dinero para el proyecto o no, igual interesan menos horas y por tanto se aportará menos. En todo caso esta es una cuestión que hay que negociar y que hablar, ya se está en ello. El siguiente paso es el Convenio de colaboración de gestión del espacio pero es que incluso para gestionar ese espacio puede ser que sea necesario crear una serie de entidades, fundaciones...y es ahí donde cada uno aporta su capital, es ahí donde en todo caso, ellos podrían aportar el capital que tienen como fábrica Lekuona que es de propiedad del municipio. Cree que no es bueno incluir los gastos del valor del edificio 60-40 porque entonces la titularidad del edificio está en 60-40 y no cree que esto sea justo para los intereses



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

proiektu honetara Dantzaguneko atala datorrela; gainera, arte eszenikoetara, dantzara eta antzerkira zabaldu nahi da. Proiektu berria izango denez, gastu berriak izango ditu, eta zehaztu beharko da zein diren gastu berriak, baina zehazten denean bideragarriak diren eta zenbat jarri behar duen bakoitzak, kontu-hartzaileak txostena egin ahal izango du eta ezarriko du benetan bideragarria den ala ez proiektua. Beste gai batean ere ez da egia esan, Diputatuen Kontseiluak uztailaren 8an onartu zuen 2016ko kreditu-konpromisoa; kreditu hori onartu du Aldundiak, 2015eko konpromiso-kreditua eta 2014ko aurrekontuak hor daude. Obra osoa sartu da, are gehiago, kanpoaldeko haur-parkea aldatzeko hirurogei mila euro ere sartu dira. Esaten dute hori akordio txarra dela, helburua ez dela lortuko, nahi dutena eztabaida dezakete, baina uste du eztabaida horiek bistakoak direla. Bistakoa da baita ere eta askotan esan izan da, ez dela egia prentsan esandakoa, alegia, bi urte baino gutxiagoan Udalaren zorraren interesak bikoiztu egingo direla Bilduk Dantzagune eraikitzeko eskatu dituen milioi askoko kredituen ondorioz. Baina nondik atera dituzte ondorio horiek? Bilduk zorra zortzi milioi euro murriztu du hiru urtean. Nondik atera dute Bilduk kreditu bat eskatu duela instalazio horiek ordaintzeko eta interes ikaragarriak eragiten dituela? Aurrekontuetan inbertsio batzuk onartu dira eta, zehatzago esateko, ziurrenik aurten zero jarriko da, ez da ordaintzeko krediturik eskatu. Zergatik esaten dute milioi askoko kredituak eskatzen ari direla, ez bada egia? Kredituak urtero eskatzen dira aurrekontuen arabera, hainbat inbertsio egiteko; ez da Lekuona proiektua soilik, inbertsioa asko dira. Horiek ez dituzte aipatzen? Beraungo igerilekuak, eskolak... proiektu asko finantzatzen dira kredituekin, eta, noski, bankuekin negoziatuko dute baldintzarik onenak lortzeko, baina argi utzi nahi du ez dutela krediturik eskatu Lekuonarako; hori gezurra da. Berriro dio, zorra zortzi milioi euro gutxiagokoa da. Orain 15 milioi

municipales, considera que es mejor mantener la titularidad del edificio municipal, hacer un proyecto conjunto con la Diputación, establecer los años de plazo de ese proyecto conjunto puesto que desde el momento que la Diputación hace una inversión tendrá que tener una amortización de esa inversión, esos son lo términos del acuerdo y una vez finalizado el mismo se verá si se continúa o no y si revierte de nuevo la titularidad al Ayuntamiento de Errenteria. Cree que en todo caso es mucho más beneficiosa esa situación que el incorporar el 60-40. No obstante como aquí se está diciendo que hay que dejar este caso encima de la mesa, hay que decir que el Interventor ya informó en su momento sobre las cuestiones de inversión y además informará en todo momento sobre las cuestiones de gestión. En estos momentos el Interventor dispone de poca información como para hacer un informe sobre los gastos de gestión. Todavía no se ha llegado a ningún acuerdo, no se sabe la cantidad de dinero que va a emplear cada una de las administraciones en este proyecto y lo que costará ya que se está hablando de estimaciones. Hay que tener en cuenta también otro error el proyecto no es Arteleku, es otro proyecto. Ya se ha dicho en más de una ocasión que la sección de las Artes Plásticas ha ido a otro lugar y en este caso lo que viene a este proyecto es la sección de Dantzagunea que además se quiere ampliar a las artes escénicas, danza y teatro. Al ser un nuevo proyecto tendrá nuevos gastos, habrá que determinar cuales son esos nuevos gastos pero será cuando se determinen y la viabilidad de los mismos y cuanto aporta cada uno, es cuando el Interventor podrá hacer su informe y establecerá efectivamente si es viable o no el proyecto. Otra de las cuestiones en las que no se ha dicho la verdad, el Consejo de los Diputados aprobó el 8 de julio el Crédito de Compromiso del año 2016, este Crédito ya está



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

euroko zorra dute, eta 2011n 18 milioitako zor pribatua eta bost milioi eta hirurehun mila euroko zor publikoa zuten Foru Fondoarekin, 2009az geroztik itzultzeke. Zorra zortzi milioi murriztu da, beraz, ez ditzatela aipatu kredituak, gezurra da.

